

## **54. ALDIZKARIA - 2005ko maiatzaren 6a**

### **II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA**

#### **2.1. ORDENANTZAK ETA BESTELAKO XEDAPEN OROKORRAK**

##### **ANTSOAIN**

### **Udal plan orokorreko hirigintza arautegiko aldaketa**

Antsoaingo Udalak, 2005eko martxoaren 11n egin osoko bilkuran, behin betiko onetsi zuen Udal plan orokorreko hirigintza arautegiko 45. artikuluko aldaketa.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 70.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, argitara ematen da aldaketaren testu osoa.

Antsoainen, 2005eko martxoaren 14an.\_Alkatea, Alfredo García López.

##### **ARAUTEGIAREN EDUKIA**

Aldatu egiten da egungo Udal Planeko hirigintzako arautegi orokorreko 45. artikulua, honelaxe geldituko baita:

45. artikulua. Homogeneotasuna erabilera aldaketetan

1.\_Hirigintza-aprobetxamenduaren unitatea bertan egin daitezkeen erabilera eta motako etxeen metro koadro eraikinetan ematen da. Lurzoru urbanizagarrian, berriz, lurzoruko metro koadroko erabilera eta motako etxeen metro koadroa da. Laburdura da m<sup>2</sup> u.c., edo u.a.

2.\_Hirigintzako arautegi partikularrean ezarri egiten da gehenez ere eraikitzen ahal diren bizitzen eta apartamentuen kopurua. P3 koadroan ezarri egiten dira erabilera horretarako diren azalera eraikiak, eta horiek datu aldaezinak ez izan arren, erreferentziatzen har daitezke etxebizitza kopurua zehazteko. Halaber, antolamendu xehekatuko eta kudeaketako dokumentuetan ezarriko da erreferentziako etxebizitzaren kopurua. Hiri lurzoru finkatuan, eraldaketak eta ordezkapenak gertatzen badira, lurzati bakoitzari dagokion erreferentziako etxebizitzaren kopurua ateratzeko, etxebizitzetarako azalera eraikia zati 110 m<sup>2</sup> c. egin beharko da.

3.\_Halako lurzati batean egin daitekeen etxebizitzaren eta apartamentuen kopuru zehatza zehazteko, etxebizitzarako proiektatzen den azalera eraikia hartuko da oinarritzat, honelako formula erabiliz.

"Lurzati batean gehenez ere eraikitzen ahal diren etxebizitzak zehazteko, 110 m<sup>2</sup> eraikiak dituen etxebizitza hartuko da unitatetzat, eta halako moldez non etxebizitzetarako aprobetxamenduari dagokion etxebizitza kopurua zatiketa baten ondorio izan den, alegia, gehenez ere etxebizitzarako eraikitzen ahal den azalera (proiektuko aprobetxamendua) zati 110.

Etxebizitza unitate hori, berriz, honako honen baliokidea izan den da: bizitzeko 4 atal gehi atal kopuru horretarako behar diren zerbitzu eta sarbideak. Beraz, etxebizitzetarako lur bat hiri lurzoru nahiz urbanizagarri bilakatu nahi bada, betiere bizitzeko atal-multzoak lortzeko, baimendu ahalko dira, non eta egun dagokion etxebizitza kopurua bider 4 eginda ateratzen den emaitza baino handiagoa ez bada.

Bizitzeko ataltzat hartuko da halako eremua non ez den sarbide, atalondo, sukalde, komuna, bainugela, edo horrelatsukorik, fisikoki desatxikia izan edo ez, hala nola: egongela, bulegoa, logela, etab. Funtzio desberdineko eremuak fisikoki atxikitzea (adibidez, egongela eta logela), atal desberdintzat hartuko dira.

Bizitzeko atal bilakatzeko, aurrekoaz gain, sustapen bakoitzean halako baldintza bete beharko da: Bizitzeko bi atal dituzten unitateak, gehenez: sustapenaren % 40."

Udalaren lizentzia behar duen edozein proiektu arrazoitu beharko du etxebizitzaren eta apartamentuen gehieneko kopurua, betiere etxebizitzetarako azalera eraikiaren arabera eta aurreko lerroaldeetan ezarritako formulazioari jarraikiz.

4.\_Etxebizitza bakoitzeko gutxienez aparkaleku bat beharko da. Halaber, beste erabilera guztietarako, aparkaleku bat beharko da eraikitako 100 m<sup>2</sup>-ko, bereziki merkataritzako erabileretarako. Nahitaez behar diren aparkaleku guztiak sustapen bakoitzeko titulartasun pribatuko lurretan egin beharko dira.

Gutxieneko horiek fisikoki burutzerik ez dagoen kasuan, eta betiere Udalaren iritzia kontuan hartuta, hiriaren beste edozein lekutako aparkalekuekin berdinduko dira, betiere erregistroaren eta hirigintza kontuen arabera sustapenari atxikiak dauden haiekin.

Iragarkiaren kodea: L0504606